

Herriko eragiliei zuzendute:

Aurretik aipatu douen morun, plataformi, gitxiki gitxike aurrea du. Horretako, herriko eragilion laguntzi ezinbesteku ikusten dou.

Herriko taldin atxikimendun bile gabiz, ordun, gustako gazkun hurrengoko lerrutan agertzen dan testuaz bat etxen dozuen edo ez jakitxi:

↳ Herrixan, posturakin arazo handi bat dala gauza argixe da. Historikoki sustraitute egon ixan dan apustu etxeko tradiziñoik itxura aldaketa nabarmena euki dau. Jokatzeko modu diferenti ixan arren, helburuk bardine ixaten jarraitzen dau; herritxar xumin egoera ekonomiko ahulaz aprobeitza eta diro metaketa handixak etxi geure konture.

Egunerokotasunin diro errezan promesi einaz, "jolastu, jolastu, jolastu" eta "irabazi, irabazi, irabazi" moduko mezuk zabaltzetxuez hedabide guztixetan. Herritxarron prekariedadiaz jolastu bitxartin, herritxarrak eta euran familixak ludopatixik sortu ahal dotxuzen problema guztixeta kondenatetxuez.

Egoerin larritxasune ikusitxe, Ondarruko herrixai dei etxen dotsau herrixan dakauen egoerin garrantzixaz konturatzea, antolatzea eta herri plataformik antolatukotxuzen etorkizuneko deialdixetan aktiboki parte hartzea. Apustu etxin eta apustu makinan arazu ez da indibiduala kolektibu baino; herritxar danona. Guazen berandu baino ariña antolatu eta behingoz apustu etxi eta apustu makinak Ondarrutik kentzea!

Aurreko testuaz bat bazatoze edo ez jakitxeko, hiru modu desberdin egongo diz plataformiai zeuen eratzune ailateko:

- 1- Plataformin korreure mezu bat bixaldute: opostura@gmail.com
- 2- Karti emon dotsun pertsoniai esanda.
- 3- Otsailak 28ko aurkezpenin plataformako kiden batei esanda.

78996568D
Eneko Iturbere Arretxe

APUSTU ETXEN KONTROLA PLATAFORMAREN IXAN
MOTAK —